

## Galtzetan gordetzeko hiztegia

**adinkeria** (edadismo\*, ageismo\*). Adina dela-eta egiten den diskriminazioa; batez ere, adinduen kontrakoa.

**agerraldi epidemiko** (es: “brote epidémico”)

**ambulatorio, osasun etxe** (anbulategi\*)

**andui** (zepa\*)

**arisku eremu.** Gaixotasun kutsakor batez mintzatuz, infekzio kasu asko dagoen eskualdea.

**asintomatiko.** Sintomarik ez duena.

**berrogeialdi** (kuarentena\*, koarentena\*)

**bakartu** (aislatu\*, aislamenteu\*). *Bost preso bakarturik daude. Bakartze ziega. Ospitaleko gela berezi batean dago, bakarturik.*

**bakterio** (bakteria\*)

**birusen kontrako, antibiral** (antibiriko\*)

**COVID-19 gaitza.** Wuhango koronabirusak eragindako pneumonia. *COVID-19 gaitza edo COVID-19a.*

**epidemia, epidemiko.** Lurralde jakin batean gaixotasun batek normalean baino jende gehiagori erasatea, bolada batez; egoera horri dagokiona.

**erretrobirusen kontrako** (antirretobiral\*)

**euste fase** (kontentzio fase\*) Birus ezezagun bat agertzen denean osasun-arduradunek ezartzen duten fasea, kate epidemiologikoa eten eta birusa gehiago zabaltzea eragozteko neurriak biltzen dituena.

**froga.** Epaitegietakoak “frogak” dira, ez “probak”. Era berean, zerbait argi eta garbi erakusteko balio duena “froga” da.

**goia jo** (piko\*)

**hazkundearen kurba apaldu / lautu.** Epe jakin bateko kutsadura kopurua adierazten duen grafikoan kurba zelaituz joatea.

**heriotza tasa** (hilkortasun tasa\*)

**hurbileko kontaktu.** Gaixotasunez mintzatuz, gaixo batekin bi metro baino gertuago luzaro egon dena. Askotan, etxekoa edo lankidea.

**inkubatu, inkubazio.** Gaixotasunez mintzatuz, organismoan infekzio bat garatu.



**immunitate sistema.** Sistema inmune\*

**kate epidemiologiko.** Infekzio baten kutsadura katea.

**kasu bat baieztatu, kasu bat egiaztatu.**

**konfinamendu, konfinatu**

**koronabirus.** Birus multzo bat, besteak beste arnasbideetako gaixotasun batzuk eragiten dituena. Wuhanoko koronabirusak eragindako pneumonia COVID-19 da. *Wuhango koronabirusa edo 2019-nCoV birusa, ofizialki SARS-CoV-2 izendatua. SARS-CoV koronabirusa.*

**kutsakor.** Erraz kutsatzen dena. *Oso kutsakorra da tifusa.*

**lapiko jotze, eltze jotze** (kazerolada\*)

**latente, latentzia.** Azaleratu gabe dagoena; haren egoera. *Birusa latente zegoen. Egun batzuetako latentziaren ondoren.*

**maskara** (maskarilla\*, maskarila\*)

**ondorioak arintzeko fase** (mitigazio fase\*). Birus baten hedapena ezin eragotzi denean ezartzen den fasea, gizarte eragina arindu nahian.

**osasun azterketa, azterketa mediko** (mediku azterketa\*, txekeo\*)

**pneumonia** (neumonia\*)

**proba.** Esperimentuak, kirol lehiak, etsaminak eta analisi medikoak “probak” dira, ez “frogak”.

**saguzar** (saguzahar\*)

**telelan.** Telekomunikazio sistemak erabiliz etxetik lan egitea.

**txaloaldi, txalo-jotze, txalo-zaparrada** (txalokada\*)

**txertoa jarri, txertatu**

**urruntze sozial.** Infekzioak kontrolatzeko neurria, pertsonen arteko kontaktua mugatzen duena.

**zero pazientea.** Gaixotasunez mintzatuz, identifikatutako lehen kasua.

